


LA COCINA DE LAS ARTES

ARTEKALE.ORG // UMOREAZOKA.ORG

ESPACIO DE REFLEXIÓN Y FORMACIÓN PROFESIONAL
PENSAMIENTO

RELATO GASTRO-ARTISTICO.COM



MARTES 9 → 15-19h "EL VALOR SOCIAL DE LAS ARTES DE LA CALLE"

15-15:45 **MARÍA VELASCO**. PROFESORA TITULAR UNIVERSIDAD COMPLUTENSE MADRID

16-16:45 **XAVIER FINA**. PROFESOR SMUC BARCELONA Y CONSULTOR CULTURAL

MIÉRCOLES 10 → 10-14h "NUEVO RELATO MEDIÁTICO DE LAS ARTES DE LA CALLE"

10-10:45 **LUCÍA LIJTMAGEL** PERIODISTA Y ANALISTA CULTURAL

11-11:45 **AIDA PALLARÉS** PERIODISTA

KALEKO ARTEEN JARDUNALDI PROFESIONALAK

"Arteen sukaldaritza"

Leioa, 2017ko maiatzak 9 eta 10

ONDORIOAK ADIERAZPEN GISA

Kaleko arteek, sortzen duten balioaren parte handia gizarteari zuzentzeko erabaki irmoa dute. Kontua ez da gizarteari itzultzea, kaleko arteek ia ez baitute ezer hartzen maileguan, ia ez baitute gizarteko baliabiderik erabiltzen. Kontua, gehiago, arteek eurek sortzen duten balioa eskuzabaltasunez partekatzea da.

Kaleko arteek badakite komunikabide batzuek zailtasunak dituztela, eta kazetariekin eta komunikabide berriein beste aliantza bat planteatu nahi dute, gizartearekin komunikazio zuzena eta zintzoa sortzeko.

Kaleko arteek badakite ekarpena egiten diotela erkidegoaren edo erkidegoen kohesioari, eta, horregatik, beraien burua boluntario aurkezten dute, kultur politiketarako tresna gisa.

Kaleko arteek ez dute ezer exijitzen, baina diziplina artistiko gisa errespetatuak izatea eskatzen dute, eta gizartearen aintzatespena bilatzen dute, berarengana konplizitatez zuzenduz.

Arrazoi horiek direla eta, kaleko arteen balioa guztien aurrean aitortzen duten argumentu hauek aurkezten dituzte:

1. Kultura demokratizatzen laguntzen dute. Herritarrek erraztasun osoz hurbil daitezke kaleko arteetara, ia ez baitago oztoporik, ez fisikorik, ez sozialik, ez ekonomikorik, ez psikologikorik. "Kulturaren demokratizazioaren" adierazle hoberena dira.
2. Demokrazia kulturalaren adibide garbia dira, izan ere, kaleko arteen espazio naturala kalean dago, demokraziarako espazio naturalean, hain zuzen ere. Horrela, apurtu egiten dituzte profesionalen eta profesional ez direnen, ikus-entzuleen eta ikus-entzule ez direnen, arteko oztopoak, demokrazia esaten diogun espazio fisiko eta kontzeptual horrekin ezinbestean lotuta dauden berdintasun mailak ezarriz.
3. Eta aurrekoaren ondorio gisa, kaleko arteek, espazioa konpartitzen duten guztien arteko elkar erantzukizuna gauzatzen den partaidetzarako espazioa sortzen dute.
4. Kaleko arteek, espazio publikoaz daukagun esperientzia fisikoa eraldatzen dute, espazio hori berriro aurkitzeko, berriro eskuratzeko, birziklatzeko... aukera eskainiz.
5. Kaleko arteak egiten diren ingurunearen proiektzioa aktibatzen dute. Kaleko arteek, leku bati buruz daukagun eta proiektatzen den irudi kolektiboa eralda dezakete.
6. Intentsitate kulturalak sortzeko aukera ematen dute. Erronka, osatzen duten kultur fenomenoaren denboran luzatzea da, programazioko egunetara mugatu beharrean. Horretarako beharrezkoa da kultur dentsitatean sakontzea, zenbait kultur planotan lan egitea, eta ez emanaldien planoan bakarrik.
7. Kultur zentralitate berriak aktibatzen eta konkistatzen dituzte, aurretik zentralitatearen parte ez ziren kultur esferak zabaltzetik hasiz.
8. Nortasuna osatzeko tresna dira. Kaleko arteak nortasunekin, banakakoekin zein kolektiboekin, esperimendatzen duten laborategiak dira.
9. Talentu berria barneratzen dute eta barruan daramate, gehiago xurgatzen dute, eta irekiago daude gauza berrietara, kide berrietara, amateurrek osatutako sektorerara, sailka ezin daitekeen horretara.
10. Berdintasun handiagoa bultzatzen eta laguntzen dute, ez baitago oztoporik bertara hurbiltzeko.
11. Eta, laburbilduz, zorion kolektibo iturri dira. Denen artean zorion kolektiboa zabaltzera laguntzen duten balio asko sortzen dituzte.